

## **HONDAKIN HANDIAK BATZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIA BIDEZ KONTRATETAKO BALDINTZA EKONOMIKO-TEKNIKOEN AGIRIA**

### **I. KAPITULUA.-KONTRATUAREN EZAUGARRIAK.**

#### **1. artikulua.- KONTRATUAREN HELBURUA.**

Baldintza-agiri honen helburua da Bermeoko Udalak udal mugartearen barruan Bolumen Handiko Etxe hondakinak biltzeko eta Gernikako Transferentzi Zentroraino garraiatzeko zerbitzua kontratatea.

Hondakin honeek dira:

- Etxeetako hondakin handiak: altzariak, etxetresna elektrikoak, alfonbrak, koltxoak, etab.
- Ekipo elektronikoak: musika ekipoak, telebistak, ordenagailuak, inprimagailuak, bideo-gailuak ...
- Etxe-hondakin handien antzekoak diren merkataritza edo industria hondakinak, hala nola: bulegoko ekipamendua (altzariak, apalak, ordenagailuak, etab.) eta etxeetako ezaugarri antzekoak daukiezan etxetresna elektrikoak (hozkailuak, etab.).
- Etxeko beste objektu txikiak: lanparak, koadroak, txirinduak, ispiluak, umeen kotxeak, maletak..

Zerbitzu honetatik kanpo geratzen diren hondakinak:

- Obra hondakinak, atepak, leihoak, komunak, bainuontziak, konketak, bideak, kristalak
- Erropea, jostailuak, liburuak, etab.
- Industri eta merkataritza enpresen hondakin bereziak: paletak, autoen hondakinak, gorpilak, industri altzariak (sukalde, hozkailu ... industrialak), fotokopiagailu handiak, denden erakusleihoak, apalak ..., itsasontzien hondakinak (kaxak, sareak ...), kontsulta medikuen aparatuek ...
- Ikastetxe edo erakundeetako (udaletxe, kultura-etxe, zinema ...) altzariak: jesarlekuak, mahaiak, ordenagailuak ...
- Baserrietako hondakinak: zuhaitz abarrak, negutegien plastikoak, animalien kaiolak, nekazarri makinaria, etab.
- Maneiatzeko garabia behar daben hondakinak: pianoak, segurtasun-kutxak ...
- Hondakin arriskutsuak: olio bidoiak, pintura poteak, gas bonbonak, bateriak, gasolina edo gasolioa izan duten ontziak, ...

## 2. artikulua.- ZERBITZUAREN AURREKARIAK ETA DESKRIPZINO OROKORRA.

### 1. Aurrekariak eta helburuak

Hona hemen azken urteetako datu batzuk:

<b>Bolumen handikoak</b>	<b>2005</b>	<b>2006</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>
Bildutako kiloak	156.900	152.720	144.510	120.479	108.908
Kiloak/biztanleko	9,21	9,02	8,45	7,07	6,35
Egindako zerbitzu kopurua	1.052	1.152	1.262	1.320	1.283
Garbigunean bildutakoa	--	--	25.780	40.140	44.640

Taulan ikusten dan moduan, bildutako kiloen maximoa 2005. urtean lortu zan eta ordutik hona, bildutako kopurua nabarmen beherantz joan da. Zergatik?. Gure ustez, batetik, azken bi urteetako krisiaren eraginagatik. Eta bestetik, Bermeoko Garbigunean gero eta bolumen handiko hondakin gehiago biltzen dalako.

Gaur egun, Bizkaian bolumen handikoen bilketa ratioa **7 kilo/biztanle** ingurukoa da. Momentu honetan Bermeoko ratioa baxuagoa da, 6.35 kilo, baina epe erdira helburu moduan Bizkaiko ratioa hartu beharko da kontutan.

Beraz, datozen urteetan Bermeen urtero 120.000 kilo inguru Bolumen Handiko biltzea espero dogu (7 kilo/biztanleko). Honek suposatzen dau, batzaz beste, astero 25 puntu garbitu beharko dirala eta 2.300 kilo hondakin bildu.

Bestetik, jakina denez, 2008. urtean Foru Aldundiak Bizkaian bolumen handikoen kudeaketarako azpiegitura barri bat jarri eban abian, Bolumen handiko hondakinak berrerabili eta birziklatzeko Urtuellako "Berziklatu" Lantegia. Hau abiarazteaz batera, bolumen handiko hondakinen tratamendurako dagokion prezio publikoa sortu zan, eta ondoren, Foru Aldundiak eta Bizkaiko udalek hitzarmen barria sinatu eben Bolumen handiko hondakinak tratatzeko. Bertan sinatutakoaren arabera, 2009ko martxoaren 1etik aurrera ezin dira Garbikerreko hondakindegietan bolumen handiko hondakinik isuri eta derrigorrez "Berziklatu" lantegira eroan beharko dira.

Era berean, Foru Aldundiak Urtuellako birziklatze lantegira eroan aurretik bolumen handikoak itxi, sailkatu eta garraioa hobeto antolatu ahal izateko Bizkaiko toki batzuetan Transferentzi Zentro barriak zabaldu ditu. Busturialdeko kasuan, Gernikako Garbigunean dago eta 2010ko udaberritik martxan dago. Bertan, Busturialdeko udalok bolumen handiko hondakinak han utzi behar doguz, eta finkatutako prezio publikoa ordaindu. Hortik aurrera, Garbiker arduratzen da handik Urtuellarako lantegira garraiatzeko.

## 2. Zerbitzuaren deskripzioa eta ezaugarriak

- **Bilketa maiztasuna:** astean behin, hasiera baten eguaztenero.
- **Asteko bilketa-puntu kopurua:** herritarrak edo udalak emandako abisu kopurua.
- **Biltzeko ordutegia:** egunez, 7-12 orduak bitartean.
- **Bilketa sistema:** Lehendabizi, erabiltzaileak deitu beharko dau aurretiaz abisua emateko enpresa esleipendunaren egoitzara, eta ezarrita dagoan egunaren bezpera gauean (martitzen gauean), hondakin handiak eraman beharko ditu hondakin edukiontziak egoten diran puntu hurbilenera. Biharamun goizean (eguazten goiza), abisuak eman diran puntu guztietatik pasa beharko da, bezperan utzitako hondakin guztiak batu eta Gernikako Transferentzi Zentrora eroan. Abisurik gabe aurkitutako hondakinak be bildu beharko dira.

Zerbitzutik kanpo dauden hondakinak. Abisuak jasotzerakoan, ikusten bada erabiltzailearen batek zerbitzutik kanpo dauden hondakin motaren bat utzi gura dituela, informatuko jako hondakin hori zerbitzutik kanpo dagoala eta bere kabuz kudeatu beharko dauala (Garbigunera eraman edo baimendutako kudeatzaile batengana eraman). Bestalde, eta hala ta guztiz ere, honelako hondakinen bat aurkitzen bada kalean, udalari abisatuko zaio jagokon erabakia hartzeko.

- **Bilketa logistika:** hamar urteko esperientziaz baliatuz eta hondakin bilketa modu arinean eta eraginkorrenean egiteko, bilketa **ibilbide bitan eta lan talde birekin** egin beharko da (ikus azken orriko eranskina):

1. Ibilbidea: Alde zaharra, Tala auzoa, Zarragoitxi, Kurtzio eta Itsasbegi. Kale oso estuak diranez, kamioi txikia erabili behar da.
2. Ibilbidea: beste kale guztiak. Kamioi handiagoa.

Hondakinak biltzeko, eranskinean finkatutako zirkuituak jarraituko dira. Bestalde, hondakin bilketa egiteko kamioi bi eta lan talde bi erabiliko dira. Lan talde bakoitza gidari batez eta peoi laguntzaile batez osotuta egongo da (guztira lau langile).

Gomendatutako kamioien ezaugarriak:

Kamio handia: gehienezko pisua 8-15 tona, kaxa estalia, zama bolumena 15-25 m<sup>3</sup>, iraulkia eta igotzen dan plataformaduna.

Kamioi txikia: gehienezko pisua 5 tona inguru, kaxa estalia, zama bolumena 15 m<sup>3</sup> inguru, iraulkia eta igotzen dan plataformaduna.

- **Erabiltzaileen abisuak:** enpresa esleipendunak **harremanetarako telefono** zenbaki bat jarriko dau (*call center*) herritarren abisuak edozein momentutan hartzeko. Telefono honetara deitu ezkeru, herritarrari bere

izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta biltzeko hondakinen azalpena hartuko jakoz. Laneko orduetan telefono hori hartzeko langileak egon behar dira, erabiltzaileen oharrak hartzeko zein zerbitzuaren gorabeherak komunikatzeko, eta laneko orduetatik kanpora erantzungailua euki behar dau deiak jasoteko. Horrela laneko orduetatik kanpora egindako abisuak be jasota gera daitezak.

Astero, eguazten goizean, aste horretan bildutako abisuen taula e-mailez bidaliko da udaleko zerbitzu eta ingurumen sailetara, zerbitzuaren jarraipena egiteko.

Egunen baten zerbitzuaren eguna aldatzen bada, abisua emon duten herritarrei aurretiaz deituko jake zerbitzuaren aldaketaz informatzeko.

Azken urtetan zerbitzu hau eman duen enpresak jarraituko ez balu eta ondorioz, herritarrentzako harremanetarako telefonoa be aldatu behar balitz, ikusita enpresaren izena eta telefonoa oso finkatuta dagoala herritarrengan, udalak eta enpresa esleipendun barriak komunikazio kanpaina txiki bat egin beharko dabe enpresaren izen eta telefono barriaz informatzeko.

### **3.-. artikulua.- ZERBITZUAREN BESTE EZAUGARRI BATZUK.**

Jasotako hondakinak esleipendunaren jabetzapean geratuko dira.

Erabiltzaileak itxi gura dauen hondakin handien kopuruak bilketa sistema kolapsau baleike, esleipendunak, udaleko zerbitzu teknikoen baimenagaz, baldintzak ipini leikeoz erabiltzaile horrer, erabiltzailearen eskakizuna eta zerbitzuaren funtzionamentu egokia ahalik eta ondoen ezkontzeko.

Esleipendunak **hileko txosten-laburpen** bat aurkeztu beharko dau derrigor, azken hilean emoniko zerbitzuari buruzko datuak eta guzti. Txosten horretan, gitxienez, kontzeptu honeek agertu beharko dira:

- Zerbitzu kopurua
- Jasotako kopurua (kilotan)
- Zerbitzuko gorabeherak.

Txosten horretan, halaber, jasotako hondakinak azken kudeaketa zentrora, edota kasu baten zabortegira eroan dirala ziurtatzen daben txartelak be aurkeztu beharko dira, hondakinok, daukiezan ezaugarrien arabera, jagoken trataera sisteman itxi dirala ziurtatzeko.

Era berean, esleipendunak zerbitzuaren **urteko txosten bat** egin beharko da. Eta kasu honetan, gitxienez honako datuak agertuko dira:

- Urte osoan egindako biajeak
- Urte osoan jasotako kopurua (kilotan)

Honez gain, esleipendunak zerbitzua jagoteko eta kontroletako lanak egingo dauzan **pertsona arduradun** bat izendatu beharko dau. Pertsona horrek,

halaber, Udalagazko kontaktu beharrak be egingo dauz.

Bestalde, eta zerbitzuaren eragingarritasunik handiena lortzeko, esleipendunak **urteko egutegia** aurkeztu beharko dau, ezarritako zerbitzua zein egunetan egingo dan zehatz-mehatz adierazota eta, horrezaz ganera, egun berezietan (Gabonak, herriko jaiak, etab.) zerbitzua beteteko konpromisoa be hartuko dau. Egutegi hori urte bakotxaren hasikeran finkatuko da, eta jagokon udal organoak onetsi beharko dau.

Bukatzeko, **urtero koordinazio bilera** bat be egin beharko da gitxienez. Bertan, zerbitzuarekin zerikusia daukien gaiak jorratuko dira.

**Fakturazio eskema:** Enpresa esleipendunak hilero zerbitzuaren faktura aurkeztuko dau udalean, honako banaketarekin:

Zati finkoa: bilketa zerbitzuaren hileko kostua

Zati aldakorra: Garbikerren faktura hile horretan eroandako kiloen arabera

**Aparteko bidaiak.** Noizbait aparteko zerbitzuren bat egin behar ba da, adibidez, ikastetxe, udal egoitza edo enpresa bateko altzari pila bat batera bildu behar balitz, aparteko bidai bat egingo da. Ez ohizko zerbitzu hauek egiteko prezio bakarra aurkeztuko da.

#### **4. artikulua.- AUKERAKO ZERBITZUAK.**

Lizitatzailleek hobari legez, **aukerako beste zerbitzu** batzuk be eskaini daikiez, halan gura badabe, baina baldintza-agiri honetako zerbitzuakaz bat datozenak. Euren eretxiz udalarentzat interesekoak izan daitekezan zerbitzuak, hain zuzen be. Eskaintza horreetako bakotxak memoria tekniko bat euki behar dau eta, bertan, zerbitzua zelan egingo dan zehaztu behar da; txosten ekonomikoa be euki behar dau.

Eskainitako aukerako zerbitzuetako bat, batzuk edo bat be ez esleitzeko eskubidea eukiko dau udalak, eta horrek ez deutse erreklamaziorik egiteko eskubiderik emongo lizitatzailleei.

#### **5. artikulua.- EXEKUZINOKO ARRETA.**

Esleipendunak arretarik handiena euki beharko dau zerbitzuak beteterakoan, espaloiak eta galtzadak ez zikintzeko. Halanda ze, hondakinak manipuletako eta hareen zamaketa beharretarako isuritako material danak (altzari zatitxoak, kristelak, etab.) berehala jaso behar dabez, baita garraiatzerakoan isuritakoak be. Ondorioz, bilketa gunee bakoitza guztiz garbi geratu beharko da altzariak bildu ostean. Behar izan ezkeru, gunea eskobatu egingo da.

Ibilgailuek bilketa beharrak arintzeko behar-beharrezkoak diran geldialdiak eta maniobrak baino ez dabez egingo, eta oinezkoen zein ganerako ibilgailuen joan-

etorria ahalik eta gitxien eragotzita, eta behar diran segurtasun neurriak hartuta. Altzariren bat desmuntatu egin behar balitz, kamioi barruan egingo da.

#### **6.- artikulua.- BALIOKO OBJEKTUAK.**

Bilketa-puntuetan topauriko baliozko objektuen barri emon beharko deute kontratistek udaleko zerbitzu teknikoei, objektu horien ugazabak dirala egiaztetan dabenei bueltau ahal izateko.

#### **7. artikulua.- GORABEHERETARA, EZUSTEKOETARA ETA ALDAKETETARA EGOKITZEA.**

Esleipenduna **lantzean behin** zerbitzuaren izakereari, kantidadeari, denporeari eta lekuari eragin deikeoen gorabehera, ezusteko eta aldaketetara egokitu behar da, udalerriaren jarduera dinamikoak eta garapenak eragindakoak baldin badira (bide azpiegituretako aldaketak edo uri-ekipamentuan egindakoak, bide publikoetako obrak, eraikinak eregiten ibiltea, ibilgailuak, gizarte gertakizunak, etab.). Egokitzapen horreek, halaber, ezelango aldaketa ekonomikorik egin barik gauzatu beharko dauz.

#### **8. artikulua.- HUELGEA EDO ENPRESA GATAZKEA.**

Esleipendunaren enpresan huelgarik edo enpresa gatazkarik baldin badago, Udalak edo eskumendun beste erakunderen batek agintzen deutozan **gitxieneko zerbitzuak** onartu eta ezarri beharko dauz enpresek.

Gitxieneko zerbitzu horreek ez beteteagaitik edo gatazkeak luzerako joteagaitik, garbitasunari jagokonez, egoerea jasanezina bihurtuko balitz, Udalak behar diran neurriak hartuko dauz behar diran zerbitzuak ezarteko, harik eta lan normaltasuna berrezarten dan arte. Hartu beharreko neurri horreek eragindako gastuak esleipenduraren pentzura izango dira, legokezan erantzukizunei kalte egin barik.

## **II. KAPITULUA.- BALDINTZA JURIDIKOAK**

#### **9. artikulua.- HARTU-EMONAREN IZAKEREA.**

Esleipenduna BERMEOKO UDALAGAZ lotuko dauen hartu-emonaren izakerea zerbitzu kontratu batekoa izango da (Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen IV. Liburuko II. Tituluko V. Kapitulua; 277. – 288. artikulua).

#### **10. artikulua.- KONTRATUAREN INDARRALDIA.**

Kontratuak **urte birako (2)** iraupena izango dau, **2010eko uztailaren 1etik hasita**. Kontratua beste bi (2) urte luzatu egin daiteke.

### **11. artikulua.- KREDITUA IZATEA.**

Kontratuak suposatuko dauan 2010. urterako gastua finantziatzeko behar beste diru aurreikusi da aurtengo ekitaldirako aurrekontuan, eta, hurrengoko urterako aurrekontuan, kontratu honek 2011. urterako suposatuko dauan gastua aurreikusi beharko da.

### **12. artikulua.- IKUSKAPENA ETA BERRIKUSKETEIA.**

BERMEOKO UDALAK ahal izango dau:

- \*Zerbitzuaren kudeaketeta ikuskatu eta berrikusi, kalidadea neurtzeko.
- \*Zerbitzua bahitu kontratistearen ez beteteagaitik eragozpen larriren bat ondorioztatuko balitz eta zerbitzu publikoko beste bitarteko batzukaz ezingo balitz konpondu (eta ebazpenaren bidez egiten ez bada betibe). Eragozpena desagertu arte bahituko dau, eta gatx-kalteak ordaintzeko be eskatu deikeo.
- \*Kontratua formalizau ostean, Bermeoko Udalak prebentzino jardueren koordinazinarako pertsona arduraduna/k izentauko dau/z. Halanda ze, koordinazinarako bitarteko beharrezkoenak, egokienak eta ordenatuenak ezarriko dira, beharreko arriskuen babeserako eta prebentzinarako, hain zuzen be. Horren helburua enpresa kontratistek Laneko Arriskuen Prebentzinoko araudia beteten dauela ziurtatzea da, eta horren barri emongo deutso enpreari.

### **13. artikulua.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.**

Sektore Publikoko Kontratuak buruzko Legearen 256. artikulua izakera orokorrean ezarten dauzan betebeharra eukiko dauz. Horrezaz ganera, beste betebeharrok be eukiko dauz:

1. Zerbitzua baldintza-agiri honetan eta eskaintzan ezarritako moduan betetea.
2. Zerbitzua puntualtasunez, zehaztasunez, segurtasun osoz eta eten barik betetea, eta Udaleko zerbitzu teknikoek ezarritako jarraibideak bete beharko dauz.
3. Zerbitzua behar dan moduan bete ahal izateko behar diran bitarteko materialak eta langileak ipintea.
4. Bide publikoa garbi-garbi ixtea, euren jardueraren ondorioz geratu daitezkean hondakin danak kenduta.
5. Derrigortuta dago zerbitzuan eragina daukien gorabehera normal, enbarazugarri zein neketsu danak Udalari jakinaraztera.



6. Zerbitzuaren kudeaketeari buruzko ikuskapen tekniko eta ekonomikoak egiten itxiko dau, funtzionamentua baldintza-agirian aurreikusitakora eta indarreko legediak ezarritakora egokitzen dala egiaztetako, eta eskatzen jakozan txostenak egin beharko dauz.
7. **Aseguru poliza** bat egin beharko dau derrigorrean, zerbitzura atxikitako ondasunak, obrak, instalazioak eta langileak bermatuko dabezana, eta kontratua gauzatzeko Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, bere 198. artikulua ezarten dauzan baldintzetan. Aseguru poliza horren harpidetzea aurkeztu beharko da esleipena jakinarazo danetik 30 eguneko epe barruan, eta administrazio kontratua sinatu baino lehenago.
8. Kontratua indarrean dagoan bitartean, esleipenduna derrigortuta dago lan arloan, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasun eta higiene arloan eta zerga arloan indarrean dagozan xedapenak betetera. Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotak be egunean euki behar dauz, beraren menpe dagozan pertsonen jagokezan kuotak, hain zuzen be; baita beraren jarduerari jagonen Jarduera Ekonomikoen Zerga be.
9. Esleipendunak beraren beharginen segurtasunaren eta osasunaren ardura euki behar dau, baita erabiltzaileena be. Beharreko osasunagaz zerikusia daukan indarreko legedia ezetu beharko dau eta behar dan moduan ezarriko dau.
10. Esleipendunak idatziz egiaztatu beharko dau, kontratautako zerbitzuetarako, **arriskuaren azterketa eta prebentzio jardueraren plangintza egin dauela.**
11. Beharlekuan behar egingo daben pertsonen informazioa eta heziketa emateko daukien obligazioa bete dauela idatziz egiaztatu daian be eskatuko jako enpreari.
12. Esleipendunaren kolaboratzaile diran pertsonak, haren zerbitzura baino ez dira egongo. Halanda ze, ez dabe ezelango harremanik eukiko Administrazioagaz, eta, ondorioz, esleipendunaren pentzura izango dira, indarreko araudia kontuan hartuta, behargin horreari jagokezan lan, zerga eta gizarte betebeharrak. Halanda ze, Administrazioak ez dau arlo horretan ezelango erantzukizunik eukiko.
13. Aitatuakoa kontuan hartuta, esleipendunaren lege ordezkariak, laguntzaileak edo haren izenean edonork nahiz esleipendunarentzat zerbitzuak egiten dabezana pertsonen egindako ekintzen edo ez-egiteen ondorioz beste pertsona batzuei eragindako kalteen aurrean Administrazioak ez dau ezelango erantzukizunik eukiko.

#### **14. artikulua.- ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK.**

1. Babes juridikoa BERMEOKO UDALAREN partetik, danen aurrean



errespetatua izan daiten esleipenduna dan ezker. BERMEOKO UDALAK, esleipendunaren jardueren nagusitarazoko dau, zerbitzuaren jardun normalari traba egin daieon edozein gorabehera eragozteko edo geldiarazoteko.

2. Emoniko zerbitzuengaitik jagokon ordainsaria jasotea, agiri honetan jasota dagoan moduan eta zenbatekoan.

#### **15.- Artikulua: HIZKUNTZA ERISPIDEAK.**

Enpresa esleipendunak, udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko hartu-emon, txosten eta azalpen guztiak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskeraz egin beharko dauz. Udalak euskerea baino ez dau erabiliko beraren hartu-emonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau itzulpenik eskainiko.

#### **16. artikulua.- KONTRATUA LAGATEA ETA AZPIKONTRATETEA.**

1. Ez da onartuko kontratua lagatea Udalak berariazko eta idatzizko baimenik emon ez badau aurretik. Kontratua lagau ezker, kontratua desegiteko arrazoia izango da.
2. Kontratistek beraren beharreko parte jakin batzuk azpikontratetako beharra baleuko, Udalari jakinarazo beharko leuskio aurretiaz eta idatziz, azpikontratazinoaren baldintza teknikoak argi eta garbi azalduta. Udalak azpikontratazinoa onartzeko edo azpikontratazinoa araudi ezargarrian aurreikusitako mugen barruan ezarteko eskubidea dauka.
3. Dana dala, parte baten azpikontratazinoa onartu arren, ez da esleipendunak Administrazioaren aurrean, kontratautako prestazino danak dirala-eta, daukan erantzukizun zuzena aldatuko.

#### **17. artikulua.- KONTRATUA DESEGITEA.**

Kontratua desegiteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206. artikuluan ezarritakoez ganera, beste honeek:

1. Administrazioari egotzi dakieon arrazoiren bategaitik kontratuaren hasikerea sei hilabete baino gehiagoz luzatzea, hasteko ipinita egoan datatik zenbatzen hasita; baldintza-agirian epe txikiagoren bat zehazten ez bada.
2. Administrazioaren erabagiz kontratua atzera egitea edo bertan behera ixtea urtebete baino gehiagoz; baldintza-agirian epe txikiagoren bat zehazten ez bada.
3. Kontratuko aldaketak ebatziko dira, alkarren segidakoak izan arren, banaka edo batera kontratuaren hasikerako prezioa aldatzen badabe %20 gora edo %20 behera (BEZ barne); eta baita hasikerako prestazinoa asko

aldatzen badabe be.

Kontratua desegiteko arrazoi horreek, enpresa kontratisteari eta bertako langileei zein enpresa kontratistek azpikontratautakoei jagokez.

**18. artikulua.- ZERBITZUA BETETEN JARRAITZEKO BETEBEHARRA.**

Kontratua desegingo balitz edota iraungiko balitz, esleipendunaren betebeharra izango da, behin-behinean eta ordura arte indarrean egon dan baldintza-agirian jasotakoa kontuan hartuta, zerbitzua beteten jarraitzea, harik eta esleipendun barria edo Udala zerbitzu horreetaz arduratzen dan arte. Dana dala, luzapen hori inoz be ezin izango da lau hilebete baino gehiagokoa izan.

**19. artikulua.- BERME EPEA.**

Kontratua amaitzen danetik ipinitako bermea itzultzen dan arte hiru (3) hilebeteko berme-epea egongo da. Epe horren barruan zerbitzuak emoteagaz zerikusia daukan erreklamazinoren bat egingo balitz administrazio bidetik, bide laboraletik zein judizialek, ipinitako bermea Udalaren esku geratuko da erreklamazio hori ebazten dan arte.

**20. artikulua.- ZERBITZUKO ARAU-HAUSTEAK.**

Esleipendunak kontratua bete behar dau derrigor, baldintza-agirian ezarritakoa eta esleitutako zerbitzuak hobeto bete ahal izateko Udalak emondako aginduak zehatz-mehatz beteta.

Jarraian zehaztutako arau-haustek kontratistarentzat edo, balegoz, azpikontratistarentzat izango dira.

**Arau-hauste OSO LARRIAK izango dira:**

1. Ezinbesteko kasuren bat ez badago, zerbitzuak beteten aurreikusitakoa baino hamabost (15) eguneko edo gehiagoko atzerapenez hastera.
2. Ezinbesteko kasuren bat ez badago, zerbitzuak sei (6) eta gehinenez hamabost (15) egunez geldiarazotea edo etetea.
3. Huelga edo enpresako gatazka kasuetan, Udalak edo eskumendun beste erakunde batzuk ezarritako gitxieneko zerbitzuak, osorik zein zati batean, ez betetea.
4. Zerbitzu bat arrazoi sendorik barik eta Udalari aurretiaz jakinarazo barik aldatzea.
5. Zerbitzuak oso txarto edo akats nabarmenakaz betetea.
6. Jasotako hondakinei, daukiezan ezaugarriak kontuan hartuta, jagoken

trataerea eta baldintza-agirian ezarritakoa ez emotea.

7. Zerbitzuaren parte bat edo zerbitzu osoa esleipenduna ez dan edo ez diran pertsonak ustiatzea.
8. Udalak zerbitzuak beteteko agindutako ordenea, araubidea eta modua ez betetea eta, oro har, zerbitzua araupetzen daben arauak ez betetea.
9. Zerbitzua emoteagaitik esleipendunak edo haren beharginek erabiltzaileen ordainsaririk edo kontraprestaziorik jasotea.
10. Laneko betebeharrak, Gizarte Segurantzazakoak eta laneko legediari buruzkoak ez betetea.
11. Ez-ohiko bilketa bat edo preminazkoa eskatzen dauen egoera baten salaketea jaso ezkerro edo egoera horren barri euki ezkerro berehalako esku-hartzea ez egitea, eta 3.-II artikulua aitutzen dauen 24 orduren epe barruan batzeko sistemeagaz ez esku-hartzea.
12. Bildutako hondakin kopuruari buruzko edozein iruzur, baita hondakin horreen azken kudeaketa sistemeari buruzkoak be.
13. Arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea. Arau-hauste larri bi egitea arau-hauste oso larri bat egitearen baliokidea da.

**Arau-hauste LARRIAK izango dira:**

1. Ezinbesteko kasuren bat ez badago, zerbitzuak bost egunez baino gitxiagoz geratuta edo etenda eukitea.
2. Esleipendunari atxikitako langileen eta auzotarren arteko liskarrak, bai tratu desagokiagaitik bai zerbitzu akasduna emoteagaitik.
3. Txostenak sasoiz ez aurkeztea, antzemandako akatsen barri ez emotea eta eskatutako informazioan egiazkotasunik ez egotea.
4. Enpresearen kudeaketeagaz zerikusia daukan informazioa faltsutzea, hatan be kontabilidadearen ganekoa.
5. Zerbitzuak emoteko behar diran segurtasun neurriak ez betetea.
6. Udaleko zerbitzu teknikoei ikuskapena eta zainketea egiten ez ixtea edo eragozte.
7. Zerbitzuei esleitutako bitarteko mekanikoen eta materialen kontserbazioa eta funtzionamentua txarra izatea.
8. Bildutako materialean dagozan datu konfidentzialak aireratzea eragingo

leuken edozein arinkeria, esleipendunaren edota hondakinak berreskuratzeko edo birzikletako enpresearen esanetara dagozan beharginen ardurabakokeriak eragindakoa, hain zuzen be.

9. Arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egitea. Arau-hauste arin bi egitea arau-hauste larri bat egitearen baliokidea da.

#### **Arau-hauste ARINAK izango dira:**

1. Aurretiaz aurreikusi barik dagozan eta baldintza-agiri honetan ezarritako baldintzei kalte egiten deutseen beste danak, baina zerbitzuari kalte larririk eragiten ez deutsienak.
2. Aitatu barik dagozan arau-hausteak aurrekoakaz daukien antzekotasunaren arabera sailkatuko dira, zerbitzuan daukien eraginaren arabera.
3. Arau-hausteak sailkatzea, baita zerrendatu bakoak be, Bermeoko Udalaren esku baino ez da egongo.
4. Zerbitzura atxikitako beharginek, laneko kontuak dirala-eta, huelgea egiten badabe esleipendunak ez dau zigorrik jasoko kontratuaren parte bat ez beteteagaitik, Udalak huelga hori esleipendunaren itxikeria eta ardurabakokeria nabarmenagaitik dala eristen deutsonetan izan ezik.

#### **21. artikulua.- ZIGORRAK.**

Udalak, aurretiaz espedientea eginda, zigor ekonomiko honeek ipini deikeoz esleipendunari:

- a) Arau-hauste **OSO LARRIA** bada, mila eta bostehun eta hiru mila euro arteko (**1.500 eta 3.000 € artean**) isuna .
- b) Arau-hauste **LARRIA** bada, seirehun eta mila eta bostehun euro arteko (**600 eta 1.500 € artean**) isuna, arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egiteagaitik jagokozan zigorrei kalte egin barik.
- c) Arau-hauste **ARINA** bada, ohartarazpena edo ehun eta berrogeta hamar eta seirehun euro arteko (**150 eta 600 € artean**) isuna, arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egiteagaitik jagokozan zigorrei kalte egin barik.

Eragindako kalteak konpontzetik eta ezar daitekezan gatxen kalte-ordainetatik independenteak izango dira zigorrak.

#### **22. artikulua.- ZIGOR PROZEDUREA.**

Zigor Ahalmenaren Prozedurarako Araudia onartzen dauen abuztuaren 4ko 1348/93 Errege Dekretuak ezarten dauena izango da zigor prozedurea.

### **23. artikulua.- EZINBESTEKO KASUAK.**

Zerbitzuak emoten hasi ezkerok, ezin izango da inoz be bertan behera itxi, ezinbesteko kasuetan salbu. Ezinbesteko kasuren bat balego, esleipendunak ahalik eta arretarik handiena eta eskura daukazan bitarteko danak ipiniko dauz zerbitzuak al bait arinen barriz be egoera normalean emoteko. Kasu horretan, halaber, laguntzea eskatu ahal izango deutso Udalari, eta azken horrek egokien eristen deutson laguntzea emongo deutso.

### **24. artikulua.- KONTRATUAREN PREZIOA.**

Kontratuaren gehieneko prezioa (luzapenen prezioa barne), Administrazio Baldintza Zehatzen Agirian jasotzen dan legeaz, honakoa izango da: **EHUN TA HAMALAU MILA EURO (114.000 €)**, BEZa kanpo.

Kontratuaren prezioa lehenengo urterako, 28.500 €-koa izango da, BEZ kanpo.

Eskaintako prezioetan, honeek sartu behar dira:

- Zerga eta tributu danak, Balio Erantsiaren ganeko Zergea izan ezik.
- Bolumen handiko hondakinak jasoteko zerbitzua.
- Hondakinak Gernikako Transferentzia Zentroraino eroateko garraioa.
- Material, erregai eta aseguru gastuak.
- Lizitatzailleak proposatutako hobakuntzen kostu ekonomikoa.

### **25. artikulua.- ESLEIPENERAKO ERISPIDEAK.**

Administrazioak, lizitazioa hutsik dagoela aitortzen ez badau, kontratua proposamenik abantailatsuenari esleitzeko ahalmena izango dau, proposamen horren balio ekonomikoa derrigorrean kontuan hartu beharrik barik. Hori ikusita, eta Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 134. artikulua xedatutakoa beteaz, ondorengo esleipen irizpideak ezartzen dira, baita hartzen dan erabakiaren hastapena ere:

1. Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.
2. Zerbitzua beteteko esleipendunak proposatutako egitamu teknikoaren kalidatea: 30 puntu.
3. Baldintza teknikoen agiriari buruzko hobakuntzak, batez be honako arloetan eragin zuzena daukienak:
  - Proposatutako zerbitzuaren kalidatea hobatzea: proposaturiko bolumen handiko hondakinez ganera, lantzean behin, beste hondakin batzuk jasoteko prestutasuna, komunikazio egokia bermatzeko proposaturiko mekanismoak eta zerbitzuaren ganeko informazio guztia eukitea, etab.
  - Proposaturiko aukerako zerbitzuak.

- Baldintza-agiri honen xedea dan zerbitzuari buruzko sentsibilizazio eta informazio kanpainak egitea.  
Atal honetan 20 puntu lortu daitezke.

## **26. artikulua.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA.**

Proposamenak aurkezteko **epea hamabost (15) egutegi-egunekoa izango da**, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikatzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Proposamenak aurkezteak lizitatuzaileak baldintza-agirian eta beste kontratuetan jasotako klausulak oso-osorik eta salbuespen barik onartzen dauzala esan gura dau. Horrezaz ganera, aurkeztutako datu danen zehaztasunari eta Administrazioagaz kontratua sinatzeko eskatutako baldintza danak beteteari buruzko aitopren erantzulea be eskatzen dau.

Lizitatuzaile bakoitxak proposamen bat baino ezin izango dau aurkeztu; baina, proposamen horretan gura beste aukera aurkeztu daitezke kontratuaren xedeari buruz.

Ezin izango dau, era berean, aldi baterako enpresa-alkarte legez proposamenik sinatu bakarrik beste bat aurkeztu badau, ezta aldi baterako beste enpresa-alkarte baten agertzen bada be. Printzipio hau ez bada beteten proposamen bat baino gehiago sinatu dauzan pertsona horren proposamen bat bera be ez da onartuko.

Proposamenak Udaleko Erregistro Orokorrean (**BERH@Z BULEGOA**, Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO) aurkeztu behar dira, gorago adierazitako epean.

Lizitatuzaileak proposamena postaz bialdu ezker, posta bulegoan bialketa datea justifikatu beharko dau, eta Kontratazio organoari, egun berean, fax, posta elektronikoa edo telegrama bidez jakinarazo. Baldintza bi horreek ez badira beteten edo bialketearen komunikazioa eskaintzak jasoteko ezarri dan epearen ostean ailegetan bada, proposamena ez da onartuko. Dana dala, adierazitako datatik hamar egun igaroten badira eta proposamena ez bada jasoten, ezelan be ez da onartuko gero.

## **ERANSKINA: BILKETA EGITEKO IBILBIDEAK**

### **1 IBILBIDEA: Alde zaharra, Tala auzoa, Zarragoitxi, Kurtzio eta Itsasbegi**

(Sollubetik hasita)

Zubiaur tar Kepa

Esparru

Bizkaiko Jaurreria

Intxausti-Sabino Arana enparantza. Hemendik aurrera, aukera bi egon daitezke:

- a) Bidebarrieta-Talakoetxea-Baztarre-Aurrekoetxea-Andra Mari-Torrontero-Ertzilla-Sabino Arana enparantza-Nardiz tar Jon-Arresi-Irakaskintza-Doniene-Arostegi-Lamera
- b) Lamera-Frantzisko Deuna-Aldatseta-Nardiz tar Jon-Erremedio- Etxebarria tar Kresentzi-Eskinarruga

Tala auzoa

Zarragoitxi

Kurtzio Auzoa

Itsasbegi

(urteera Gernikarantz)

### **2 IBILBIDEA: beste guztia**

(Sollubetik hasita) Zubiaur tar Kepa

Ispizua tar Segundo

Frantzisko Deuna

Askatasun Bidea

Artike Bidea

Ander Deuna

Erreñezubi

Ondarraburu

Dibio-Mikel Deuna-Adubidxe

Artieda tar Iñigo

Lamera Txiki

Esparru

Bizkaiko Jaurreria

Arresi

Matxitxako Bidea

Teodoro Anasagasti

Atalde

Aritzatxu Bidea

Bizkai Buru

Benito Barrueta

Matxitxako Bidezabala

Aritzatxu Bidea

Atalde





Baratz-Eder urbanizazioa  
Atalde  
Aritzatxu Bidea  
San Martin auzoa  
Zubiaur tar Kepa  
Santamañe  
Txibitxiaga  
(urteera Gernikarantz)